

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

HEZKUNTZA ETA KULTURA SAILA

Vitoria-Gasteizko Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak 2021eko uztailaren 2an hartutako erabakiaren laburpena; bertan deitzen baitira hezkuntza-premia berezien arloko elkarteek antolatutako hezkuntza-jarduketarako laguntzetarako deialdi publikoa eta deialdia arautzen duten oinarri espezifikoak, 2021-2022 ikasturtea

BDNS(Identif.): 574692

Diru-laguntza orokorreari buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan ezarritakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Horren testu osoa datu base nazionalean aurki daiteke. Diru-laguntzak (<https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/574692>).

Lehena. Onuradunak

Deialdia hezkuntza-premia bereziak dituzten pertsonak artatzen dituzten elkarteei zuzentzen zaie berariaz; irabazi-asmorik gabeko elkarte izan behar dute elkarte horiek, eta beren egoitza soziala Vitoria-Gasteizen izan behar dute.

Bigarrena. Helburua

Hauxe da dirulaguntzen deialdi honen xedea: hezkuntza-premia bereziak dituzten pertsonekin lan egiten duten elkarteei laguntzea, bai bazkideei edota horien senitartekoei zuzendutako hezkuntza-jarduketak antolatzen eta kudeatzen, bai ikastetxeetako ikasleei edota horien familiei edo irakasleei zuzendutako jarduketak antolatzen eta kudeatzen; betiere, Vitoria-Gasteizen esparruan eta 2021-2022 ikasturtean pertsona horiek eskolan edo gizartean integratzeko bidea sustatu behar dute jarduketara horiek.

Hirugarrena. Oinarri arautzaile espezifikoak

Vitoria-Gasteizko Udaleko Tokiko Gobernu Batzarraren 2021eko uztailaren 2ko erabakiaren bitartez onetsiak; ALHAOn argitaratuko dira.

Laugarrena. Zenbatekoa

Deialdiari 20.000,00 euroko aurrekontua egokitu zaio.

Bosgarrena. Eskabideak aurkezteko epea

Eskabideak eta dokumentazioa aurkezteko epea irekita egongo da deialdi honen oinarrien laburpena ALHAOn argitaratzen den egunaren biharamunetik hasita 2021eko irailaren 30a arte, azken hori barne. Eskabideak epez kanpo aurkeztea diru-laguntzak emateko prozeduratik kanporatzeko arrazoi izango da.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko uztailaren 2a

Hezkuntza eta Kultura Saileko zinegotzi ordezkaria
ESTIBALIZ CANTO LLORENTE